



ALDEZ AURREKO KONTSULTA, ZEINAREN BIDEZ JAKIN NAHI BAITA ZER IRITZI DUTEN IRUÑEKO EMISIO GUTXIKO EREMUA ARAUTUKO DUEN ORDENANTZAK ERAGITEN AHAL DIEN HERRITARREK ETA ORDEZKARITZA-ERAKUNDEEK.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikulua xedatzen duenez, Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da Administrazio eskudunaren webgunearen bidez, zeinean jasoko baita zer iritzi duten etorkizuneko arauak ukitzen ahal dituen subjektuek eta erakunderik ordezkagarrienek honako hauei buruz:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Ordenantza onestea beharrezko eta egoki den.
- c) Proiektuaren helburuak.
- d) Egoten ahal diren konponbide alternatibo erregulatzailerak eta ez-erregulatzailerak.

Dokumentu honen xedea da kontu horiei erantzutea eta Iruñeko emisio gutxiko eremua arautuko duen ordenantza jendaurrean paratzean oinarri izatea. Helburua da arauaren hartzaile izaten ahal diren pertsonak eta herritarrek, oro har, parte hartzeko eta ekarpenak egiteko aukera izan dezatela.

a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.

Den-denek ezagutzen dituzte dagoeneko errepideko zirkulazioaren ondorioak hirietan. Hainbat erakunde, Osasunaren Mundu Erakundeak kasu, ohartarazi dute munduko biztanleriaren %99 kutsadura maila altuen eraginpean dagoela, eta ondorioz arrisku handia duela horri lotutako osasun arazoak izateko: bihotzeko gaixotasunak, biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa, istripu zerebrobaskularrak, minbizi mota batzuk eta pneumonia, besteak beste (OME, 2021). Horri dagokionez, Europako Ingurumen Agentziak kalkulatu du urtean 30.000 heriotza goiztiar baino gehiago gertatzen direla Espainian airearen kalitate txarraren ondorioz (EEA, 2020).

Emisio-iturriak askotarikoak izan arren, errepideko zirkulazioak arrisku bat izaten jarraitzen du osasun publikoarentako, eta zuzenean eragiten du hiriko biztanleak aireko kutsatzaileen eraginpean izatea. Gainera, klimak, eguzki-erradiazio handiak, topografiak eta Espainiako hirien bereizgarri den dentsitateak areagotu egiten dituzte kutsadura atmosferikoaren ondorio negatiboak gure herrialdean. Zirkulazioa da,



halaber, hiri-inguruneetako zarataren iturri nagusia (kutsadura akustikoaren % 80 da guztira), eta ondorio negatiboak ditu gehiegizko eta ohiko esposizioagatik, hala nola depresioa, antsietatea, gaixotasun kronikoak izateko arriskua handitzea eta istripuak izateko arrisku handiagoa. Era berean, ibilgailu pribatuak hirian duen presentzia handia trafiko-istripuekin eta mugikortasun eredu sedentarioagoekin lotuta dago, bai eta horrek herritarren osasunean dituen ondorioekin ere.

Errepideko zirkulazioari lotutako osasun publikoko arriskuen ebidentzia zientifikotik abiatuta, hirietan klima-aldaketaren erronkari modu integralean heltzeko beharrezkin batera, eta prebentzioari eta hiri-ingurune osasungarriagoak sustatzeari buruz gero eta sentibilizazio handiagoa dagoenez, hirietan ibilgailu pribatuari eskainitako espazioa murriztea lehentasuna bihurtu da hainbat eragilerentzat.

b) Ordenantza onestea beharrezko eta egoki den.

Aurreko apartatuan deskribatutako testuinguruan, emisio gutxiko eremuak hirietako zirkulazioa murrizteko mugikortasun jasangarriko neurriak dira. Errege Dekretuan honela definitzen da emisio gutxiko eremua (EGEa edo LEZa, ingelesezko sigletan: *Low Emission Zone*): ibilgailuen ingurumen-sailkapena oinarri hartuta horien sarbidea murrizten edo mugatzen duen hiriko eremu mugatua. Eremu horiek “espazio publikoa bizikidetza osasungarri, jasangarri, seguru eta inklusiboko espazio gisa berreskuratzeke aukera bat dira”.

Helburu nagusia da zirkulazioa eta ibilgailu motordunen presentzia murriztea espazio publikoan, “beharrezko zirkulazio motorduna” kontzeptua oinarri hartuta; hau da, honako hauen joan-etorriak soilik baimentzea: zerbitzu publikoenak, larrialdietakoenak, mezularienak, salgaien banatzaileenak, etxez etxeko banaketan aritzen direnenak, garaje edo aparkalekuetara joaten direnenak, hoteletara doazenak, mugikortasun urriko pertsonenak edo salgaiak garraiatu behar dituzten egoiliar eta profesionalenak, batez ere. Horrela, emisio gutxiko eremua beste aukera bat da hiri eredu jasangarriago eta osasungarriago batean aurrera egiten jarraitzeko, mugikortasun aktiboa eta ibilgailu pribatuak espazio publikoan duen presentzia murriztea sustatuta, espazio hori berreskuratzeke, bizikidetza jasangarriko, osasungarriko, seguru eta inklusiboko espazio gisa.

c) EGEaren helburuak.

Emisio gutxiko eremua ezartzearen ondorioz lortu nahi diren helburuak hauek dira:



- Airearen kalitatea hobetzea
- Klima-aldaketa arintzea
- Soinu-kalitatearen helburuak betetzea
- Garraiatzeko modu jasangarriagoen aldeko aldaketa modala bultzatzea
- Garraiobideen erabiltzean energia-eraginkortasuna sustatzea

d) Egoten ahal diren konponbide alternatibo erregulatzaileak eta ez-erregulatzaileak.

Ez da jasotzen konponbide alternatibo erregulatzailearik eta ez-erregulatzailearik.

PARTE HARTZEKO EPEA

Uztailaren 31(2025)tik abuztuaren 13(2025)ra.

EKARPENAK BIDALTZEKO

movilidad@pamplona.es